

MAITATU eta ZERBITZATU

Jose Ramon Aramendi, Donostiako Elizbarrutiko Caritasen zuzendaria, pandemia eragiten ari den ondorioak gertutik jarraitzen ditu. Mezu zuzen baten bidez, etxean jarraitu eta itxaron egin behar dugula dio. Hau da, pazientzia izatea. Tunelaren amaiera gero eta hurbilago dago, eta "CARITAS GIPUZKOA bere ekarpena egiten ari da horrela izan dadin".

Zer neurri hartu ditu CARITAS GIPUZKOAk Covid-19ren aurrean?

Lehen ekimena, garrantzitsuena, inolako baldintzarik gabe, gure Etxegabeko Pertsonen sailari babes osoa adieraztea izan da; sozialki, talderik babesgabe eta ahulena. Guk haietatik hurbil egoten jarraitzen dugu.

Aterpe (eguneko eta gaueko arreta-zentroa) eta Hotzaldi (eguneko eta gaueko birmoldatutako harrera-zentroa) eguneko 24 orduetan irekita daude, bertan bizi diren pertsonak ahalik eta erosoan eta artatuen egon daitezten. Elikadura, higieena eta osasun beharrak asetatuta dauzkate.

Nola egokitu da CARITAS GIPUZKOA errealitate berri horretara?

Kleroak -parrokoak eta apaizak-, kontratatutako langileek eta boluntarioek, laguntza-lana egiten jarraitzeko, 'harrera' presentziala egiten jarraitzen dute, baina batez ere, telefonoz. Ematen ditugun zerbitzu ezberdinak bermatuta daude: #CaritasekEzDulxten

Nabarmendu eta eskertu nahi dut, baita ere, akonpainamendu eta lurraldeko animazioa saila egiten ari diren lana, baita Familiarena ere (Bultzada, Adore eta Miriam). Ondoan ditugun etxeko txikienak -eskola-laguntza- eta lanpostuak galdu dituzten familia eta emakumeak -etxeko langileak- hurbiletik jarraitzen dituzte.

Eta zer esan Trintxer eta Sorabilla harrera-zentroeiei buruz! Pertsona ahulenei laguntzeko sentsibilitate eta hurbiltasun handienarekin jarraitzen dute lanean.

Nola eragin dio birusak CARITAS GIPUZKOA osatzen duen taldeari?

Boluntarioek, beren laguntzarekin, gertutik jarraitzen dituzte gauzatzen ari garen neurriak. Hemen, berriro ere eskerrak eman nahi dizkizuet egiten duten lanagatik: unerik txarrenetan ematen duten guztia.

Bestalde, orain arte, zoritxarrez, Covid-19k bost langileri eragin die zuzenean –gehienak prozesuaren amaieran daude, eta berriro lanean hasteko irrikaz–, eta beste bostek maila desberdineko sintomak izan dituzte. Besarkada handi bat guztiontzat.

Zer ondorio ekonomiko eragiten ari da pandemia CARITAS GIPUZKOAren?

Orain arte, %25ean handitu dela arreta antzeman dugu. Horrek guztiak, jakina, eragina izango du CARITAS GIPUZKOAren kontuetan. Nabarmendu nahi dut Caritasek, Eliza izanik, azpimarratu nahi dut, ahal duen guztia egingo duela Koronabirusak kaltetutako premia gehien duten pertsona eta familiei laguntzen jarraitzeko.

CARITAS GIPUZKOA ez dago bakarrik.

Hala da. Txalotu egin nahi ditut erakunde publiko eta pribatu guztiak, pandemiari aurre egiteko gure erakundeari emandako laguntzagatik. CARITAS GIPUZKOA dagokigun lekuan dago eta egongo da bere giza ondare osoa –boluntarioak– eta profesionala –langile kontratatuak– emateko. Mila esker, halaber, CARITAS GIPUZKOAra laguntza ekonomikoa ematera etorri diren apaizei, boluntarioei, gure emaileei, erakundeei, enpresei... Guretzat oso konfiantza garrantzitsua da.

Etorkizunari begira, zer gizarte aurreikusten duzu?

Globalizazioa gizatiartu eta gizarte bidezkoagoa sortu behar dugu. Loiolako Inazioren, Gipuzkoako patroia, leloari jarraitzea gustatuko litzaidake, "Orotan, maitatu eta zerbitzatu". Eta, jakina, GIPUZKOAKO CARITAS saiatuko da hori gauzatzen.

#KaritateakEzDulxten
#KeinuBakoitzakDuZeresana